



Versement anticipé, à titre exceptionnel, d'un premier acompte de 50% aux opérateurs identifiés de l'action linguistique

Hizkuntza jarduerako eragile jakinei, salbuespen gisa, %50eko lehen ordainketa aitzinatzea

Contexte et présentation du projet :

L'OPLB soutient financièrement chaque année, via conventionnement, 15 opérateurs identifiés de l'action linguistique dont l'activité croise pleinement les objectifs de la politique linguistique. Pour rappel, aux 9 opérateurs habituels, ont été ajoutés l'an dernier, par décision de l'Assemblée générale de l'OPLB du 26 mars 2020, 6 opérateurs supplémentaires, jusque-là soutenus chaque année via l'appel à projets, en qualité d'opérateurs identifiés.

Ce soutien financier est habituellement attribué chaque année après délibération de l'Assemblée générale de l'OPLB début juillet, et versé en deux temps : 75% de l'aide après le vote de l'AG et le solde après justification de l'activité par l'opérateur. Ainsi, le versement du premier acompte de 75% intervient habituellement à la mi-juillet.

En avril 2020, à titre exceptionnel et pour tenir compte du contexte exceptionnel de crise sanitaire et de l'impact de cette crise sur les opérateurs, le Président de l'OPLB avait proposé aux membres du bureau de l'OPLB de verser le premier acompte de manière anticipée afin de favoriser la mise en sécurité des 15 opérateurs identifiés de l'action linguistique. Après consultation et accord de l'ensemble des membres du bureau sur cette proposition, le versement du premier acompte de 75% avait été réalisé début mai.

En 2021, compte tenu de la persistance de la crise sanitaire et de son impact sur l'activité des opérateurs, et après vérification auprès de l'agent comptable que la trésorerie de l'OPLB le permet, il est proposé à l'Assemblée générale de l'OPLB de verser à titre exceptionnel un premier acompte de 50% de manière anticipée, afin de favoriser cette année encore la mise en sécurité des opérateurs.

De la même manière qu'en 2020, ce versement pourrait se faire à l'issue de cette Assemblée générale, sur les bases suivantes :

- Adoption du budget 2021 de l'OPLB par l'Assemblée générale du 25 mars 2021, et vote dans ce budget d'une ligne budgétaire de 1.930.000 € dédiée au fonds commun de soutien financier aux opérateurs privés.
- Adoption par l'Assemblée générale du 25 mars 2021 de la convention cadre OPLB-Gouvernement de la CAE pour la période 2021-2025.

Testuingurua eta proiektuaren aurkezpena:

Urtero EEPk, hitzarmen bidez, hizkuntza politikako helburuekin osoki bat egiten duten hizkuntza jarduerako 15 eragile jakin diruz lagunten ditu. Oroigarri gisa, 2020ko martxoaren 26ko EEPren Biltzar Nagusian erabaki zen, usaiako 9 eragileez gain, ordu arte proieku deialdiaren bidez lagunduak ziren 6 eragile gehiago eragile identifikatu gisa laguntzea.

Usaian EEPko Biltzar Nagusiak onartu ondoan, dirulaguntza hori uztail hastapenean ematen zaie bi alditan: laguntzaren %75 Biltzar Nagusiak bozkatu ondoan, eta saldoa, eragileak jarduera justifikatu ondoan. Horrela, usaian laguntzaren %75aren lehen ordainketa uztail erditsutan egiten da.

2020ko apirilean, salbuespen gisa, eta osasun-krisiaren testuinguru berezia eta krisi horrek eragileengan izan duen eragina kontuan harturik, EEPko Lehendakariak proposatu zien EEPko Bulegoko kideei lehen ordainketaren aitzinatzea, hizkuntza jarduerako 15 eragileen segurtasuna bermatzeko gisan. Bulegoko kide guziei proposamen horri buruz beren iritzia eta baimena galdegia ondoan, %75aren lehen ordainketa maiatz hasieran egin zen.

2021ean, osasun-krisiak irauten duela ikusirk eta eragileen jardueran duen eragina kontuan harturik, baita EEPko diruzaintzak horretarako aukera ematen duela diruzainarekin egiaztatu ondoan, EEPko Biltzar Nagusiari proposatzen zaio, salbuespen gisa, dirulaguntzaren %50eko lehen ordainketaren egitea, aurten ere eragileen segurtasuna bermatzeko helburuarekin.

2020an egin zen maneran, ordainketa hori Biltzar Nagusi honen ondotik egin daiteke, oinari hauen gainean:

- 2021eko martxoaren 25eko Biltzar Nagusiak EEPren 2021eko aurrekontua onartzea, eta, aurrekontu horretan 1.930.000 euroko aurrekontu-lerro bat bozkatzea, eragile pribatuen laguntzeko dedikatu lankidetzarako fondo gisa.
- 2021eko martxoaren 25eko Biltzar Nagusiak, EEP eta Eusko Jaurlaritzaren arteko 2021-2025 epealdirako esparru-hitzarmena bozkatzea.

- Adoption par l'Assemblée générale du 25 mars 2021 de l'Annexe 2021 à la convention cadre OPLB-Gouvernement de la CAE, qui dans son article 3, fixe la répartition de ce fonds commun de 1.930.000 € en 2 ensembles financiers : un premier ensemble financier de 1.801.500 € visant à soutenir, sous couvert de conventions, 15 opérateurs identifiés de l'action linguistique dont les activités croisent pleinement le programme des actions à mener en partenariat entre l'OPLB et le Gouvernement de la CAE, et un second ensemble financier de 128.500 € mis en place, dans le cadre d'un appel à projets action linguistique ouvert à tout autre opérateur privé du Pays Basque de France.
- Aides financières votées par l'AG de l'OPLB du 2 juillet 2020 et qui s'inscrivent dans la continuité des aides votées les années précédentes (cf. tableau de suivi des aides financières), pour un montant total correspondant au montant du premier ensemble financier de 1.801.500 € destiné à soutenir les 15 opérateurs identifiés de l'action linguistique.

Il est rappelé que les aides financières 2021 seront votées par l'Assemblée générale du 1^{er} juillet 2021, avec versement d'un second acompte de 25% à l'issue de ce vote.

Délibération :

Sur la base de ces éléments, l'Assemblée générale de l'OPLB décide :

- d'approuver le versement anticipé à titre exceptionnel du premier acompte de l'aide financière de 2021 aux 15 opérateurs identifiés de l'action linguistique, sur la base du tableau annexé au présent rapport ;
- d'autoriser le versement dès à présent du premier acompte de 50% à ces mêmes opérateurs.

Adopté à l'unanimité.

- 2021eko martxoaren 25eko Biltzar Nagusiak, EEP eta Eusko Jaurlaritzaren arteko esparru-hitzarmenari dagokion 2021eko eranskina onartzea. Eranskin honen 3. artikuluak, 1.930.000 euroko lankidetzarako fondoaren bi multzotan banatzea finkatzen du: 1.801.500 €-ko lehen diru-multzoa Euskararen Erakunde Publikoa eta Eusko Jaurlaritzaren arteko sustapen-lerroekin bete-betean datozen hizkuntza jarduerako 15 eragile identifikatuak hitzarmen bidez diruz laguntzeko, eta 128.500 €-ko bigarren diru-multzoa proiektu deialdiaren bidez beste edozein eragileren iniziatiabak diruz laguntzeko helburuarekin.
- 2020ko uztailaren 2ko EEPren Biltzar Nagusiak bozkatuko dituen dirulaguntzak, aitzineko urteetan bozkatu dirulaguntzen jarraian datozenak (ikus dirulaguntzen jarraipen taula), hizkuntza-jarduerako 15 eragile jakinen laguntzeko aurreikusi 1.801.500 €-ko lehen diru-multzoari dagokion kopuru osoa.

Oroitarazi behar da 2021eko dirulaguntzak 2021eko uztailaren 1eko Biltzar Nagusiak bozkatuko dituela eta, horren ondotik, dirulaguntzaren %25eko bigarren ordainketa eginen zailea.

Erabakia:

Elementu horien oinarrian, EEPko Biltzar nagusiak erabakitzentzu du:

- hizkuntza jarduerako 15 eragile jakinei 2021eko dirulaguntzaren lehen zatiaren ordainketa aitzinetik egitea, salbuespen gisa, txosten honi erantsitako taulan oinarrituz;
- eragile horiei %50eko lehen ordainketaren egiteko baimenaren ematea.

Aho batez onartua.

Evolution des aides financières attribuées aux opérateurs conventionnés						
Domaine - Opérateur	2016	2017	2018	2019	2020	2021 (hypothèse)
Enseignement						
Seaska	380 000 €	405 000 €	405 000 €	405 000 €	405 000 €	405 000 €
Euskal Haziak	28 000 €	28 000 €	28 000 €	28 000 €	28 000 €	28 000 €
Biga Bai	21 000 €	23 000 €	23 000 €	23 000 €	23 000 €	23 000 €
Ikas-Bi	35 000 €	40 000 €	40 000 €	40 000 €	40 000 €	40 000 €
Apprentissage du basque par les adultes						
Aek	411 000 €	500 000 €	500 000 €	520 000 €	520 000 €	520 000 €
Médias						
Euskal Irratiak	285 000 €	310 000 €	310 000 €	310 000 €	310 000 €	310 000 €
Euskal Hedabideak	20 000 €	10 000 €	- €	5 000 €	8 000 €	8 000 €
Aldudarrak Bideo (kanaldude.eus)	70 000 €	80 000 €	80 000 €	80 000 €	80 000 €	80 000 €
Herria (Hebdomadaire Herria)	42 500 €	45 000 €	48 500 €	48 500 €	48 500 €	48 500 €
Euskal komunikabideak (Iparraldeko Hitza)	25 000 €	28 000 €	28 000 €	28 000 €	28 000 €	28 000 €
Ipar baigura komunikazioa (kazeta.eus)	25 000 €	28 000 €	28 000 €	28 000 €	28 000 €	28 000 €
Errobi Promotions (radiokultura.eus)	30 000 €	35 000 €	35 000 €	35 000 €	35 000 €	35 000 €
Loisirs						
Bertsularien Lagunak	55 000 €	55 000 €	65 000 €	65 000 €	65 000 €	65 000 €
Uda Leku	145 000 €	179 000 €	179 000 €	179 000 €	179 000 €	179 000 €
Vie Sociale						
Université d'été du Pays Basque (UEU)	4 000 €	4 000 €	4 000 €	4 000 €	4 000 €	4 000 €
	1 576 500 €	1 770 000 €	1 773 500 €	1 798 500 €	1 801 500 €	1 801 500 €

Eeragile identifikatuei esleitu dirulaguntzen bilakaera						
Arloa - Eragilea	2016	2017	2018	2019	2020	2021 (hypothèse)
Irakaskuntza						
Seaska	380 000 €	405 000 €	405 000 €	405 000 €	405 000 €	405 000 €
Euskal Haziak	28 000 €	28 000 €	28 000 €	28 000 €	28 000 €	28 000 €
Biga Bai	21 000 €	23 000 €	23 000 €	23 000 €	23 000 €	23 000 €
Ikas-Bi	35 000 €	40 000 €	40 000 €	40 000 €	40 000 €	40 000 €
Helduden euskalduntzea						
Aek	411 000 €	500 000 €	500 000 €	520 000 €	520 000 €	520 000 €
Hedabideak						
Euskal Irratiak	285 000 €	310 000 €	310 000 €	310 000 €	310 000 €	310 000 €
Euskal Hedabideak	20 000 €	10 000 €	- €	5 000 €	8 000 €	8 000 €
Aldudarrak Bideo (kanaldude.eus)	70 000 €	80 000 €	80 000 €	80 000 €	80 000 €	80 000 €
Herria (Hebdomadaire Herria)	42 500 €	45 000 €	48 500 €	48 500 €	48 500 €	48 500 €
Euskal komunikabideak (Iparraldeko Hitza)	25 000 €	28 000 €	28 000 €	28 000 €	28 000 €	28 000 €
Ipar baigura komunikazioa (kazeta.eus)	25 000 €	28 000 €	28 000 €	28 000 €	28 000 €	28 000 €
Errobi Promotions (radiokultura.eus)	30 000 €	35 000 €	35 000 €	35 000 €	35 000 €	35 000 €
Asialdia						
Bertsularien Lagunak	55 000 €	55 000 €	65 000 €	65 000 €	65 000 €	65 000 €
Uda Leku	145 000 €	179 000 €	179 000 €	179 000 €	179 000 €	179 000 €
Bizitza soziala						
Udako Euskal Unibertsitatea (UEU)	4 000 €	4 000 €	4 000 €	4 000 €	4 000 €	4 000 €
	1 576 500 €	1 770 000 €	1 773 500 €	1 798 500 €	1 801 500 €	1 801 500 €